

XAKE AZKARREKO NAFARROAKO TALDEKAKO TXAPELKETA.

(2024ko maiatzaren 11n, Iruñean).

Eguna:

2024ko maiatzaren 11n.

Txapelketan erabiliko den sistema:

Suitzar sistema erabiliko da, 9 txandatan, horretarako nahiko talde badira. Talde gutxi baldin bada, Liga sistema erabiliko da. Multzoen bidez ere antola daiteke, beste sistemetarako talde gutxi edo asko baldin badira.

Ordutegia:

Goizeko 10etan hasita, goizez eta arratsaldez. Arratsaldez, 16:30ean hasiko da seigarren txanda.

09:30: Parte hartzaileen zerrenda erakustea, lehenengo parekaketa egitea eta Lehiaketa Batzordearen Ordezkaritzaren hautaketa.

10:00: Lehenengo txanda.

10:50: Bigarren txanda.

11:40: Hirugarren txanda.

12:30: Laugarren txanda.

13:20: Bosgarren txanda.

16:30: Seigarren txanda.

17:20: Zazpigarren txanda.

18:10: Zortzigarren txanda.

19:00: Bederatzigarren txanda.

19:30: Sailkapena erakustea.

Tokia:

Iruñeko Printzearen Gotorlekua Gazte Egoitza (Iruñeko Goroabe kalea, 36).

Partiden iraupena:

15 minutu gehi 5 segundo jokaldiko.

Salneurria:

20 euro.

Izena emateko epea itxi baino lehen ordaindu beharra dago. Bestela, taldea kanporatua izan daiteke.

Epez kanpo ez da talderik onartuko.

Nafarroako Xake Federakundeak bi kontu korrante ditu:

- Sabadell Bankuan, ES04 0081 4363 09 0001031904.
- La Caixan, ES07 2100 3693 22 2200027214.

Inskripzioa:

Epea 2023ko maiatzaren 7an amaituko da (asteartea da).

Inskripziorako formularioa betetzea ezinbestekoa da.

Inskripzioa posta elektronikoz egingen da, helbide honetan: "info@fnajedrez.com". Horretarako prestatutako formularioa erabiliko da. Federazioaren webgunearen bidez ere egin daiteke (taldeko arduradunek egin behar dute orduan).

FIDEren arauak:

FIDEren arauak zuzenduko dute txapelketa.

Jokalariak:

Lau jokalariko taldeak izanen dira (8 egon daitezke zerrendan). Ez da beharrezkoa FIDE eloaren arabera jokalariak jartzea. Indar zerrenda eta kapitainaren izena eman behar dira inskripzioa egiteko epearen barruan. Ordena mantendu behar da txapelketan zehar.

Mahaietan hutsune bakoitzeko puntu erdiko zigorra jasoko du taldeak. Hutsuneak azkeneko mahaietan utzi behar dira.

Aktan jarritako jokalaria bat agertzen ez bada, puntu bateko zigorra jasoko du bere taldeak. Gainera, bere atzetik jarritako jokalarien partidak galdutzat emanen zaizkio bere taldeari.

Neurketa jokatzeko, gutxienez bi jokalaria aurkeztu behar dira (bestela, 4-0 galdu eta 2 puntuko zigorra jasotzen da).

Jokalarien zerrendak inskripzio denboraren barruan eman behar dira: Jokalariak eta kapitaina. Gutxienez, 4 jokalaria eta gehienez 8.

Kapitainak FIDEren arautegian zehaztutako funtzioak izanen ditu (Lehiaketa Araudi Orokarren 2.8a artikuluan agertzen dira).

Kapitaina ezin bada agertu, berak izendatutako pertsonak egingen ditu kapitain funtzioak. Hasi beino lehen jarri behar da ordeztu kapitainaren izena.

Taldea ez agertzea eta kortesiazko denbora:

Kortesiazko denborak bandera erori arte iraunen du.

Arrazoirik gabe partida jokatzera agertzen ez den taldea kanporatua izanen da. Epaileak eta Torneoeko Zuzendariak ahalmena dute hasierako orduan ez agertutako taldeak kanporatzeko. Baita Lehiaketa Batzordearen delegazioa hautatzeko unean (09:30) ez agertutako taldeak ere.

Kanporatutako talde bateko jokalariek ezin izanen dute beste talde batekin jokatu.

Akta:

Kapitainak dira akta osatu behar dutenak eta neurketa bukatu ondoren sinatu behar dutenak.

Zuriekin jokatzeko duen lehenengo mahaiko jokalaria taldeko kapitainak jarri behar ditu neurketako datu orokorrak. Gero bere taldearen datuak beteko ditu. Gero, beste taldeko kapitainak gauza bera egingen du bere taldearen datuekin.

Aurrekoa egin gabe, neurketa hasteko ordua iristen bada, horren errudunaren taldearen erlojuak abian jarriko dira.

Partidak ez dira hasiko aktak bete arte.

Beharrezkoa da aktako datu guztiak zuzen betetzea:

- Torneoak, kategoria eta txanda.
- Neurketaren data.
- Taldeen izenak.
- Kapitainen izen-deiturak.
- Jokalarien izen-deiturak.
- Jokalari bakoitzak lortutako puntuazioa.
- Talde bakoitzak lortutako puntuazioa.

Aktak osatu gabe aurkeztea arrazoia da legez kanpoko zerrendatzat jotzeko.

Jokalari baten daturen bat ez bada jartzen, ondorio hauze izanen da: Zerrendan modu bidegabean jarritako jokalaritzat hartuko da.

Erreklamazioak:

Desadostasunak adierazteko erreklamazioa egin diezaiotke kapitainak Lehiaketa eta Kirol Diziiplina Batzordearen Ordezkaritzari. Epaillearen erabakien aurrean, idatziz egin behar du erreklamazio hori, gorabehera gertatu eta berehala. Ezin bada, asmoa agertu behar du, gero prestatzeko (tartean Ordezkaritzako kideak bilduko dira).

Lehiaketa Batzordearen Ordezkaritza:

Lehenengo txanda baino lehen, kapitainek Ordezkaritza horretako lau kide aukeratuko dituzte (ordezkoak izanen dira horietako bi, titularrak gorabeheran sartuta daudenerako). Klub batek talde bat baino gehiago izanen balitu, horietako baten kapitainak soilik parte hartzerik izanen luke. Lehenengo bozketan epaile titulua duten kapitainak aukera daitezke soilik. Bigarren bozketa beharrezkoa bada, gainontzeko kapitainak ere bai. Gehienez jota klub bakoitzak ordezkari bat izanen du Lehiaketa Batzorde horretan. Kapitainek adinez nagusiak izan behar dute.

Torneoko zuzendaria ere kide izanen da eta kalitatezko botoa izanen du.

Diziplinako ahalmenak ez ditu izanen Ordezkaritzak. Soilik epaillearen edo Torneoko zuzendariaren erabakien aurkako erreklamazioak ebatzea izanen da bere lana.

Hiru kideak biltzerik ez badago, birekin har daiteke erabakia. Beharrezkoa bada, Lehendakariak har dezake bere kabuz.

Jakinarazi ondoren eraginkorrak izanen dira ebazpenak.

Batzordeko kideren bat inplikaturak badago aferan edo interesatua balitz, utzi beharko dio bere postua ordezko bati.

Batzordeko lehendakariak zehaztuko du hori, bere kabuz edo erreklamazio baten aurrean. Hala ere, Batzordeak erabaki hori atzera bota dezake.

Torneoko zuzendariak (edo bere ordezkoak), Ordezkaritzako lehendakari moduan, ebazpena idatziko du eta aldeei eta epaile nagusiari emanen die.

Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordearen aurrean erreklamazioa egin daiteke Ordezkaritzaren erabakien aurka. Honek ofizioz ere har dezake parte gertaera larriak badira, horien aurrean Ordezkaritzak erabakirik hartu ez bada, bere borondatez edo inork erreklamaziorik aurkeztu ez duelako.

Parekaketak:

Lehenengo txandako parekaketa egiteko taldeetako lehenengo lau jokalarien batez besteko eloen arabera ordenatuko dira taldeak (FIDE eloa edo, hori eduki ezean, FEDA eloa). Sistema suitzarraren arauak aplikatuko dira gero edo multzotan modu orekatuan banatuko dira taldeak. Liga bada, zenbakiak zozkatuko dira; ahal bada, klub bereko taldeek haien arteko partidak jokatu dituzte lehenengo txandetan.

Parekaketak erakutsiko dira joko gelan. Suitzar sistema erabiltzen bada, sistema informatiko baten bidez egingen da.

Suitzar sistema erabiliz gero, parekaketaren aurkako erreklamazioa egin daiteke txanda hasi baino lehen, arrazoi hauengatik:

- Jokalari baten aurka bigarren aldiz jokatu behar izatea.
- Kolore berberarekin hiru aldiz jarraian jokatzeari (azkeneko txanda ez bada).
- Kolore batekin bestearekin baino hiru aldiz gehiago jokatzeari (azkeneko txanda ez bada).

Ezberdinketak:

Neurketa irabazteagatik 2 puntu lortuko dira; 2-2 geratuz gero, puntu bana talde bakoitzarentzat; neurketa galtzeagatik 0 puntu.

Ezberdinketak:

Suitzar sisteman: 1) Mahai bakoitzean lortutako puntuazioaren batura; 2) neurketako puntuazioa erabilita, berdintutako taldeen arteko emaitzak; 3) Bucholz (aurkari txarrena kenduta), ez jokaturako partidak balizko aurkari baten aurkako berdinketatzat hartuta; 4) Bucholz osoa, ez jokaturako partidak balizko aurkari baten aurkako berdinketatzat hartuta; 5) Sonnenborn-Berger (mahaietan lortutako puntuak bider aurkariaren puntuak, talde guztiekin izandako emaitzak kontuan hartuta).

Round Robin sisteman: 1) Mahai bakoitzean lortutako puntuazioaren batura; 2) neurketako puntuazioa erabilita, berdintutako taldeen arteko emaitzak; 3) Sonnenborn-Berger (mahaietan lortutako puntuak bider aurkariaren puntuak, talde guztiekin izandako emaitzak kontuan hartuta); 4) Herbehereetako sistema, berdintutako taldeen artean; 5) garaipena lortu duen lehen mahaiaren alde; 6) lehenengo mahaiaren beltzekin jokatu duenaren alde.

Neurketa zuzena: 1) Herbehereetako sistema; 2) garaipena lortu duen lehen mahaiaren alde; 3) lehenengo mahaiaren beltzekin jokatu duenaren alde

Beste hainbat kontu:

Joko gelan partidak analizatzerik ez dago.

Partidan zehar joko gela uzteko epaileei baimena eskatzea gomendatzen da.

Torneoan izena ematean, oinarri hauek onartzen dira.

Antolatzailea:

Nafarroako Xake Federakundea.

Torneoko zuzendaria:

Joaquin Perez-Seoane Garrido.

Epailea:

CAFNAk izendatuko du.

AZKENEKO SAILKAPENA, 2022-23ko DENBORALDIAN

- 1) **Mikel Gurea (Burlata) – 10 puntu.**
- 2) **Donibane Kirol Elkarte A (Iruñea) – 8 puntu.**
- 3) **Orvina (Iruñea) – 5 puntu.**
- 4) Arrano Elkarte (Iruñea) – 3 puntu.
- 5) Donibane Kids (Iruñea) – 3 puntu.
- 6) Donibane Kirol Elkarte B (Iruñea) – Puntu bat.

AZKEN DENBORALDIOTAKO HISTORIA.

2004-05eko denboraldian: **Orvina** (Iruñea), garaile; **Mikel Gurea Fonclima** (Burlata), bigarren; **Paz de Ziganda Ikastola** (Atarrabia), hirugarren.

2005-06ko denboraldian: **Orvina** (Iruñea) (**Unai Garbisu De Goñi, Juan Jesus Mindegia Guruçeaga, Sergio Navarrete Delgado, Iñaki Rebole Arbea, Gustavo Jimenez Martin, Roberto Monje Peinado eta Pedro Rebole Arbea**), garaile; **Oberena A** (Iruñea), bigarren; **Runa Lakora** (Iruñea), hirugarren.

2006-07ko denboraldian: **Orvina** (Iruñea) (**Iñaki Rebole Arbea, Gonzalo Mombiela Martinez, Gustavo Jimenez Martin eta Roberto Monje Peinado**), garaile; **Paz de Ziganda Ikastola** (Atarrabia), bigarren; **Sancho el Fuerte-Tiebas** (Tebas-Muru Artederreta), hirugarren.

2008-09ko denboraldian: **Gazte Berriak** (Antsoain) (**Alfonso Cemborain Oricain, Iñaki Esparza Martinez, Aritz Idiazabal Troyas eta Jesus Maria Oyaga Valencia**), garaile; **Orvina A** (Iruñea), bigarren; **Orvina B** (Iruñea), hirugarren.

2012-13ko denboraldian: **Orvina** (Iruñea) (**Pablo Urriza Iricibar, Luis David Jimenez Almeida, Adolfo Ruiz Anton eta Mikel Ochoa Aldaz**), garaile.

2013-14ko denboraldian: **Mikel Gurea A** (Burlata) (**David Arjol Etxeberria, Aitor Martinez Ayesa, Sergio Anguas Fanlo, Luis David Jimenez Almeida, Aritz Idiazabal Troyas, Iker Irañeta Unzue eta Pablo Enterrios Carballo**), garaile; **Santa Ana** (Tutera), bigarren; **Orvina** (Iruñea), hirugarren.

2014-15eko denboraldian: **Orvina A** (Iruñea) (**Sergio Navarrete Delgado, Mikel Ortega Lopez, Pablo Urriza Iricibar, Juan Jesus Mindegia Guruceaga eta Javier Sevilla Subiza**), garaile; **Mikel Gurea A** (Burlata), bigarren; **Oberena A** (Iruñea), hirugarren.

2015-16ko denboraldian: **Antsoain Xake Taldea** (Antsoain) (**Aitor Huarte Zozaya, Rafael Ruiz Escobar, Ander Garralda Ruiz, Andres Malon Insausti, Jose Zaratiegui Cardesa eta Alvaro Garisoain Ardanaz**), garaile; **Oberena A** (Iruñea) (**Pedro Viñal Gutierrez, Andres Valentin Sempere Gomis, Javier Lasa Garcia, Fernando Hernandez Zorzano, Isidro Diaz Redondo eta Alejandro Meza Tudela**), bigarren; **Orvina** (Iruñea) (**Pablo Urriza Iricibar, Mikel Ochoa Aldaz, Juan Sanciñena Arpide eta Esteban Garraza Obaldia**), hirugarren.

2016-17ko denboraldian: **Oberena A** (Iruñea) (**Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Jose Javier Cortes Bueno, Pedro Unanua Garcia, Jesus Luis Aguinaga Ruiz eta Cesareo Arrese-Igor Sanchez**), garaile; **Antsoain** (**Axel Roviralta Montero, Asier Alfaro Piñero, Aitor Huarte Zozaya, Ander Garralda Ruiz, Jose Zaratiegui Cardesa eta Alvaro Garisoain Ardanaz**), bigarren; **Oberena B** (Iruñea) (**Miguel Donazar Garayoa, Diego Moral Barragan, Juan Labiano Hernandez, Jorge Fernandez Villameriel eta Iñaki Guardado Minchinela**), hirugarren.

2017-18ko denboraldian: **Oberena A** (Iruñea) (**Miguel Navarro Cia, Pedro Viñal Gutierrez, Mariano De Pablos Fernandez, Javier Habans Aguerrea, Juan Labiano Hernandez, Martin Pascual Garcia, Aimer Del Carmen Hernandez eta Leyre Abrisqueta Zudaire**), garaile; **Antsoain** (**Axel Roviralta Montero, Jesus Martinez Zazo, Jose Zaratiegui Cardesa eta Jose Javier Villanueva Arribas**), bigarren; **Donibane Kirol Elkarte** (Iruñea) (**Miguel Argaya Urdaniz, Javier Lizuain Toni, Kiko Sanchez Salazar, Diego Blanco De la Rosa, jokatu ez zuen Daniel Lizarraga Rivas eta Iñigo Martinez Lizardi**), hirugarren.

2018-19ko denboraldian: **Oberena A** (Iruñea) (**Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Juan Labiano Hernandez, Pedro Viñal Gutierrez, Miguel Muñoz Arana, Mariano De Pablos Fernandez, Katarzyna Jedrocha, Cesareo Arrese-Igor Sanchez eta Jesus Luis Aguinaga Ruiz**), garaile; **Donibane Kirol Elkarte A** (**Marc Narciso Dublan, Luis David Jimenez Almeida, Iñigo Martinez Martin, Jesus Sanchez Carayol, Jose Manuel Lopez Orois, Borja Zamarbide Iñarrea, Miguel Argaya Urdaniz eta Eduardo Tuñon Gonzalo**), bigarren; **Oberena B** (Iruñea) (**Aimer Del Carmen Hernandez, Martin Pascual Garcia, Javier Habans Aguerrea, Leyre Abrisqueta Zudaire, Cristian Atipov Hadzhiev, Daniel Mugica Arratibel, Diego Moral Barragan eta Iago Arregui Gonzalez**), hirugarren.

2019-20ko denboraldian: **Mikel Gurea A** (Burlata) (**Camilo Lotero, Alexandr Pedchenko Zhilkov, Angel Vilchez Gonzalez, Adrian Oroz Carrasco eta Iñigo Ayucar Nuñez**), garaile; **Oberena** (Iruñea) (**Martin Pascual Garcia, Pedro Viñal Gutierrez, Cristian Atipov Hadzhiev, Aimer Del Carmen Hernandez, Miguel Donazar Garayoa, Daniel Mugica Arratibel eta Pablo Mugica Arratibel**), bigarren; **Orvina** (Iruñea) (jokatu ez zuen **Adrian Ortega Lopez, Mikel Ochoa Aldaz, Esteban Garraza Obaldia, Juan Sanciñena Arpide, Haymar Leone Amigot, Adolfo Ruiz Anton eta jokatu ez zuen Sergio Iturralde Olcoz**), hirugarren.

2021-22ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkarte A** (Iruñea) (**Mikel Huerga Leache, Iñigo Martinez Martin, Jesus Carlos Sanchez Carayol, Adrian Aldave Aguado eta Javier**

Lizuain Toni), garaile; **Oberena A** (Iruñea) (**Javier Habans Aguerrea, Martin Pascual Garcia, Pedro Viñal Gutierrez, Jesus Luis Aguinaga Ruiz, Andres Valentin Sempere Gomis eta Iñaki Guardado Minchinela**), bigarren; **Mikel Gurea A** (Burlata) (**Daniel Pinto Holguin, Camilo Lotero**, jokatu ez zuen **Angel Vilchez Gonzalez, Adrian Oroz Carrasco, Iker Fernandez Cobos eta Aitor Esparza Toni**), hirugarren.

2022-23ko denboraldian: **Mikel Gurea** (Burlata) (**Daniel Pinto**, jokatu ez zuen **Alexandr Pedchenko Bondar, Adrian Oroz Carrasco**, jokatu ez zuen **Sergio Anguas Fanlo, Iker Fernandez Cobos eta Aitor Esparza Toni**), garaile; **Donibane Kirol Elkartea A** (Iruñea) (**Mikel Huerga Leache, Iñigo Martinez Martin, Jesus Carlos Sanchez Carayol, Borja Zamarbide Iñarrea eta Mariano De Pablos Fernandez**), bigarren; **Orvina** (Iruñea) (jokatu ez zuen **Pablo Urriza Iricibar, Haymar Leone Amigot, Esteban Garraza Obaldia, Rodrigo Santos Reyes, Juan Sanciñena Arpide eta jokatu ez zuen Adolfo Ruiz Anton**), hirugarren.

PALMARESA, 2004-05eko DENBORALDITIK.

- 1) Orvina (Iruñea) – 5 titulu (Orvina 4 eta Orvina A bat).**
- 2) Mikel Gurea A (Burlata) – 3 titulu.**
- 3) Oberena A (Iruñea) – 3 titulu.**
- 4) Antsoain Xake Taldea (Antsoain) – Titulu bat.
- 5) Donibane Kirol Elkartea A (Iruñea) – Titulu bat.
- 6) Gazte Berriak (Antsoain) – Titulu bat.

2024-04-30.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.